

Elizalde, Baztango folkloreakaren lekuko

Gaur egingo dira Arizkunen Maurizio Elizalde txistulariaren hileta elizkizunak

Maurizio Elizalde joan den larunbatean hil zen, euskal folkloreakaren alde hainbat lan egin ondoren, 77 urte zituela. Txistulari handia izateaz gain, ikertzaile eta biltzaile garrantzitsu modura nabarmendu zen Maurizio. Oso gaztetatik ekin zion txistua jotzeari eta, era berean, euskal folkloreakaren aldeko lanari, bere aita Antonioren pausuei jarraiki. Gaur egingo dira Arizkunen bere arimaren aldeko hileta elizkizunak, igandean egin zen gorpu ehorzketa eta gero.

MAILLO OIARTZABAL / DONOSTIA

Euskal dantza eta musikagintzan burubelarri sartuta eman zituen bere bizitzaren hainbat urte Mauriziook, betirako galtzeko zorian zeuden doinu eta dantza asko berreskuratu eta eraberritzen. Lan garrantzitsu horrek sarria izan zuen 1991. urteko irailaren 22an. Egun horretan Euskal Herriko Txistularien Elkarteak bere Urrezko Dominaz saritu zituen Maurizio Elizalde eta Felix Iriarte.

Maurizio Elizalde Etxeberria Amaiurren jaio zen 1915eko irailean, Lizundegiko Mendia baserrian. Beranduago Arizkunen Martintoneko bordara joan zen bizitzera Elizalde sendia, eta herri horretan eman zuen Mauriziook bere bizitzaren zati handiena. Silbestra Elizalde bere lehengusinarekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten.

Maurizio Elizalderen lanean izugarriko eragina izan zuen bere aita Antoniok, txistularia hau ere. Azken honek, Erratzuko Jose Tellechearekin batera, lan handia egin zuen bere garaian Baztan aldeko mutildantza eta doinu ezberdinak biltzen eta ezagutzera ematen. Mauriziook bazuen, beraz, noren bidea jarraitu, eta horixe egin zuen hain zuzen.

Musika munduan hamaika urte zituela eman zituen lehen pausak, bere aitaren ondoan. Ondoren, osasunak utzi izan zion bitartean, Mauriziook hainbat eta hainbat emanaldi eskaini zituen, Arizkunen eta inguruko herri askotan. Horrez gain, Mauriziook nahi zuen orori erakusten zizkion berak hain maiteak zituen Baztango euskal dantzak, eta pisu handia izan du gizon honek dantza horiek ezagutarazterakoan, ez bakarrik bere inguruan, Euskal Herri osoan baizik.

Gainera, Elizaldek bere aitari ikasi zizkion dantza denak pen-

tagrametara pasatu zituen, denboran zehar iraun zezaten. Lan honi 1943az geroztik ekin zion. Beharrezko lana zalantzarik gabe, melodia ugari betirako ez ahanztarren. 'Argian' joan den urtean argitaratu zen elkarrizketan zioen bezala, buruz ikasi zituen doinu denak. «Denak buruz. Gero idatzi eta dudarik baldin banuen, txistua hartu eta zuzendu egiten nuen. Gaur ez baziren lan horiek egin, denak galdua zeuden».

Bere lorpenez hitzegiterakoan, «nik berri egin dut, perfektionatu, batzuetan tonu desberdinean. Aita ohitura zaharrekoa zen», azpimarratu zuen. Mauri-


ziorentzat, txistua edo beste edozer ongi jotzeko ezinbestekoa zen gustora egitea, benetako gogoz, sentimenduaz. «Jotzerakoan sentimendua eta gogoa behar da, bestela alferrik aritzea da».

Maurizioaren ustez, «txistua instrumentu independentea» zen eta oso zaila

gertatzen zen beste musika tresnekin nahastea, ez zitzaizkion nahasketa horiek gehiegi gustatzen, berak nahiago zuen txistua hutsik jotzea.

Maurizio urte askotan ibili izan zen Felix atabalariarekin, harantz eta honantz Euskal Herriko baztar guztietan. Aurretik izan zituen beste lagun batzuk, hala nola Xidro, Manuel eta Tomas Jaurena, baina denbora gehiena Felixen ondoan eman zuen.

Maurizio Elizaldek bere zaharren kulturaren zati eder bat berreskuratu, gorde eta erakusten eman zuen denbora, eta hori kontutan edukitzea komeni da. Lan hori, gainera, euskal kultura eta musikarekiko maitasunez egin zuen. Maurizio eta berarekin batera ibili direnei zor zaie Baztan inguruko dantza eta doinu ederak bizirik irautea eta gure egunotaraino iristea.



● Maurizio Elizalde, Baztango folklorea, musika eta dantzak partituretan jarri dituen gizona izan da. Berrogei urte goitik eman ditu txistua jotzen eta gazteei irakasten. Orain hiru urte utzi zuen egiteko hau.

